

ASPARREN

4.Zbk	<u>Arloa:</u> 1.Ohiturak eta tradizioak
<u>EGILEAK:</u> Carlos Ortiz de Zarate eta Ihauteri Batzordea	<u>Itzultzailea:</u> A.Oribe Aginako

ASPARRENGO HERRI INAUTERIAK " Ilarduia-Egino-Andoin "

Bada garaia Ilarduia, Egino eta Andoin herrietan azken aldian ospatutako herri inauteriekiko; baina, aitzitik, joandako urteak aurrera pasa ahala adierazpen biziera honek beren balioa zein onarpena berreskuratu egin ditu, gaur egun zenbait arlo ezberdinen adierazpenetan, kultura, antropologia edota etnografia, besteak beste, interes handiko ekimenez jotzeraino heldu delarik.

Guzti hau kontuan hartuta baita honako erronkak guregantu ere, hala nola, sozializazioan, herri txikienen aldeko aukeran edota adin, ideologia zein jatorri ezberdinetako gizakien gizarteratzean ere; Ilarduia, Egino, Andoin eta Araia herrietako zenbait ipurtarinez osatutako gizatalde batek 2005.urteaz geroztik herri ihauteri hauek berreskuratzeko lanari ekin genion.

ESKER ONAK

Bolondres-eran ekimen hau aurrera ateratzeko parte hartu duten gizaki guztien izenak zerrenda batean jasotzeari arriskutsua irudituko litzaiguke hauetxetako baten izena ahaztuko genukeelakoan, ohikoa izaten denez. Hona hemen denontzat geure eskeronik sentituenarekin batera harro sentitzeko zioa herrian eta herriarentzat lan egiteko gauza garelako frogatu egin baita denok bat sentitzeko ahalmena jenderik badagoela geure etxeetan oraindik ere.

Hala eta guztiz ere, salbuespena egiteari ongi deritzogu eta bihotz-bihotzez era berezian zein kuttunean ere "geure adinekoei" eskerrik estimatuena helarazi nahiko genieke beren testigantza baliotsuagatik (bibliografizkoa zein ahozkoa gehienengoaren kasuan batik bat) ihauteri mota hau berriro ere berpiztu ahal izateko.

Esker mila, Ilarduiako Fermin, Vidal eta Marina; Eginoko Francisco, Julia, M^aLuisa eta Nicolas, Ibargurengo Rosario baita Andoingo Santiago, Puri, Martina eta M^aJesus.

AHOZKO TRADIZIOTIK ABIATURIK

INAUTERIA

Inauteri honexekiko ikerketa Asparrengo Ilarduia (I), Egino (E) eta Andoin (A) herriei dagokie.

Herri hauetako inauteriek larunbatetik inauteri astearteraino irauten zuten, egunik aipagarrienak igandea eta asteartea bera izaten zirelarik.

Igande eguerdian gazteak "porrero"z mozorroturik kaleratzen ziren etxez etxe herri eskean danbor, kitarra eta akordeoi soinupean (E). Gauean afariaz gozatzen ziren gau musikarekin batera.

Asteartean "lastozko gizona" prestatzen zuten. Mendiraino joanda "ulagak" ekartzen zituzten surako. Arratsaldean herriko gaitz guztiak leporatzen zizkioten eta azkenik sua ematen zitzaion edota polboraz lehertarazten zuten.

LASTOZKO GIZONA

Lastozko gizona jaka, alkondara eta praka urdin zaharrez osatuta zegoen (E). Eta guzti hau lastoz edota belar lehorrez beteta (E). Galtzerdiak eta abarkak gehitzen zitzaizkion eta buru gisa kartoizko mozorro bat jartzen zitzaion (E). Bi begi handiak gehitzen zitzaizkion (A) eta buru gainean txapel edota kapela (E), lastozko kapela (A) jartzen zitzaizkion eta lepoan zapi gorria (E).

Ilarduian sakuekin egiten zuten, lastoz beteta, gurutzatutako makil bati itsatsita besoak gisa. Andoinen gurutze gisa bi makilekin osatzen zuten lastozko gizonaren gorputza emateko. Handia zen, potoloa baita traketsa ere.

Panpina osatuta izatean asto baten gainean ezartzen zuten oinetatik lotuta zutik iraun zezan eta porreroek apapa ateratzen zuten (E). Andoinen gurdi baten gainean egiten zuten. Eta herri eskari-txanda bukatzean lurrean makil batean josita uzten zuten.

Inauteri asteartean, apaiz jantzitako gizalagun bat "Lastozko gizonari" sermoia egiten zion zenbait gaitz leporaturik (E). Eta azkenean heriotz zigorrera kondenatua izaten zen (E). Exekutatua izateko garaia etorri bazetorren. Une honetarako panpinaren barrenean polborazko kartutxo bat zegoen eta metxari sua emanaz, Pum!, erruduna leher eginda geratzen zen (E). Sententzia beteta zegoen eta pertsonaiaren hilketarekin batera herriak jasandako gaitz guztiak desagertarazten ziren.

Ilarduian ez zuten lehertarazten baizik eta "Zelaian" erre egiten zuten.

Andoinen sutean bertan lehertarazten zuten.

PORREROAK

Mozorroturik zegoen jende guztia adierazteko "porrero" izena erabiltzen zen.

Banaka batzuk idi zamarrak eramaten zituzten, aurretik zein atzetik ere (I). Andoinen buru gainean ardi larrua eramaten zuten aurretik harriz garbituta zein zurratuta ere. Honekin burua eta bizkarra estaltzen zituzten, banaka batzuk, aitzik, burua besterik ez.

Eginon, idi gisa uztarri batekin mozorrotzen ziren. Gurditik tiraka eginez, atzetik gainontzeko gazteen laguntzaz Gurrumendi gaineraino joaten ziren eta ulagak ekartzen zituzten. Ilunabarrean hauetxekin herriko plazan sua egiten zuten eta gainetik jauzi egiten zuten.

Banaka batzu sakuz mozorrotuta joaten ziren eta zuloak egiten zituzten beso, hanka zein bururako ere eta lastoz betetzen zuten (I). Beste batzu arropa zahar eta zabalez janzten ziren barruan arto hostoz, lastoz edota belarraz beteta askoz ere handiagoa emateko. Horietako batzuk gorputz atal jakin batzuetan arto hostoak jartzen zituzten desitxuratuta agertzeko, hanketan edota ipurdian, tripan zein bizkarrean ere konkorra eramango bazuten bezala... (A).

Batzuk ere saku bat tolestatuta buruan eramaten zuten.

Neskek jantzi txuriak eramaten zituzten farfail askorekin (gonazpikoak) (I). Andoinen mutiko batzu izaten ziren farfail zaharrekin ateratzen zirenak.

Kolore biziko arropak erabiltzen zituzten (I). Neska batzu neska-ijituez mozorrotzen ziren (I).

Andoinen, azken ihauterietan, herrira ontzi ipurdiak konpontzera joandako azken latorregilea jantzita zegoen bezala mozorrotu ziren, bere lanari ekiteko plaza erdian jarririk, lepoko zabal eta luze batekin.

Beste pertsonai bat ere agertzen zena Atsoa izaten zen (A).

Espartzuzko sokekin gerrian zinzarri eta kaskabiloak lotuta eramaten zituzten. Bizkaraldean zeuden eta jauzika edota korrika egiterakoan hotsa egiten zuten. Lepoan ere kaskabiloak eramane zituzketen (A).

Eskutan eurak baino luzeagoak ziren makilak eramaten zituzten (E,A)lastozko gizona jo ahal izateko. Andoinen, eskutan zeramaten ere makil bat puntan zaldi edota behor ilea izan zuela. Behorrei buztan ilea moztzen zieten eta makil bati itsasten zitzaion neskak zirikatzen.

Beste batzuk "potxika", putxika" edo "pusika" (txerri maskuria) zeramaten umeak jotzeko (I,A). Porrero batzuk biak eramaten zituzten, makila eta putxika, esku bana (A). Beste batzuk egurrezko "sardak" eramaten zituzten (I) hiru eta bost puntakoak (A). Ez ziren falta izan ere berrozko erratzak eramaten zituztenak umeen atzetik joateko; batzutan ere lokatzaz zikinduta etxeetako ateak lohitzten zituzten.

Aupegia beltzez margotuta eramaten zuten, kortxo edota gorritz ere (I). Andoinen beltzez edota gorritz

margotzen zuten ere, baina begi aldeak margotu gabe uzten zituzten. Batzutan aupegia margotu beharrean kolore hauetan mozorroak margotzen zituzten. Beste batzuk kartoizko mozorroak eramaten zituzten, oso itsuiak izaten zirelako baita beldur handia sortarazten zutelako (E, A). Banaka batzuk ere animalia hezurak mozorro gisa erbiltzen zituzten (A). Ez ziren falta izan ere emakumerik beren aupegia belo batekin estalita zeramatenak (I). Beste batzuk arto ilez egindako bibotea itsatsita zeramaten (A).

Buruan, eskuarki lastozko kapela eramatea ohikoa izaten zen (I, A) edota txapela ere (A). Askotan, lasto kapelaren azpian, aurrekaldean zintzilik eramaten zuten zapi bat begitartea estaltzeko asmoz (A). Batzutan txanoak eramaten zituzten, kukurutxo antzaz, koloretako zintak zintzilikaturik (A). Beste batzuk artilezko txanoak eramaten zituzten "pelendrinak" (arto hostoak) bazter batetik zintzilikatuta. Banaka batzuk ere txanoak non atzetik zaldi buztana eramaten zuten dena zinta batekin lotuta (A). Eta beste batzuk zutik jositako lumaz (A).

Porreroak ezezagunak izaten ziren. Ahalegin handiak egiten zituzten beste herrikideek ez ezagutzeko. Eta oso desitxuratuak geratzen ziren.

Umeez beldur handia izaten zuten. Hauetxan atzetik joaten ziren puztutako putxikeekin eta baten bat harrapatuz gero errekarra eramaten zuten eta aurpegia garbitzen zioten (A).

SUA

Suak ihauteri asteartean bere garrantzi handia izaten zuen (E). Egun hartan goizean Eginoko gazteak Gurrumendi gainera joaten ziren ulagen bila eta Ilarduiakoak Zubietara. Eramaten zuten gurdia idiz mozorrotutako bi gaztek tiraka egiten zuten idi gisa (E). Gurditik tiraka egiten zutenak uztartuta joaten ziren, adardunak baiziren (E). Idi mugak kokatzen zitzaizkien ileak zintzilikatuta eta guzti larruzko uhalekin lotuta (I). Gainean idi zamarra jartzen zitzairen (I). Eta larruen azpitik blusaz eta praka beltzaz jantzita joaten ziren (A). Beste gazte batzuk, mozorroturik ere, gurdia eramaten laguntzen zuten, uztarria ongi jarrita eta finkatuta izateko (E). Gurdi gainean herriko txikienak joaten ziren (I).

Ulagen bila joateko erabiltzen zuten gurdia baxua izaten zen (I).

Astearte gaueko afalostean menditik jeitsitako ulagak pila batean jarrita erretzen zituzten su batean (E). Denenek suaren inguruan dantzatzen zuten eta banaka batzuk adorea erakutsirik jauzi egiten zuten gainera (E).

SENAR-EMAZTEGAIK

Gurdian senar-emaztegai bikote bat joaten ziren azkealdian ezkonduakoen arrokekin jantzita (I). Senargaia

urdin-iluneko arropa eta kopadun kapelarekin eta emaztegaia fardilekin. Emakumea txuriz joaten zen (I).

Eskean

Inauteri igandean, eguerdialdean, gazteak porreroz jantzita herriko etxez etxe joaten ziren eskean (E).

Etxeetatik eskean ibiltzen ziren neskek zein mutilak ere; herrikideek arraultzak txorizo, urdaia eta dirua ematen zizkieten. Guzti honekin askari-afaria egiten zuten (I). Otarre handi batean jasotzen zuten jendeak emandakoa (I).

Andoinen bakarrik mutilek egiten zuten herri-eskaria Iburgurenen hasita eta gero Andoinen. Bi ardo zahatoak eramaten zituzten etxeetan eskatzeko (A). Gurdian joaten ziren (A).

Emandakoaz gain askotan etxeetan elikagaiak lapurtzen zituzten geroago jateko (A).

Jasotakoarekin afari ederra egiten zuten, akordeoia edota kitarrarekin (E). Eskatzera mutilak joaten ziren, baina afaltzean denak elkartzen ziren neskek zein mutilak ere (E).

Jan-edana

Etxeetatik ekarritako guztiaz gain, baita lapurtutakoa ere (oiloak, gaztak, eta abar), ardi bat hiltzen zuten mutilek (I) edo bi ardi (A), basauntza bat (I) ere eta batzutan txahal bat (A, I) eta janaria amaitu arte festak irauten zuen (I).

Jan-edariak etxe berean egiten zuten (A).

Egun hauetarako Araiatic ardo zahagia ekartzen zuten (A).

Musika

Ohiko musika tresnak akordeoia, filarmonika, kitarra eta danborra izaten ziren.

Andoinen bizilagun batek akordeoia jotzen zuen eta beste batek filarmonika. Eta bigarren honek "ezetzetan" zegoela neska bat ikusten zuen bakoitzean dantzatzera gonbidatzen zuen eta aldi beran filarmonika jotzen zuen.

Porreroen kanta hauxe izan zen:

"Porreroak, lapikotik babak atera!;
atera bat, atera bi, atera hiru, atera lau, atera bost...
eta egin korrika!".

Eta jarraian putxikekin porreroak korrika umeen atzetik joaten ziren jotzeko asmotan (A).

Piperminakeria

Ihauteri festa hauetan askotan "piperminakeria"ren bat egiten zuten. Zeregina piperminak erretzearekin batera etxe zulo batetik beren kea sartzea izaten zen, hots: harraskoa, katazuloa, eta abar. Era eraginkorrez egin ez gero barrukoak derigorrez kalerazten zituzten.

Kalean ere txantxa hau egiten zuten.

Anonimatoa

Kontu handiz bestek euren nortasunaz ez ohartzeko ahaleginak egiten zituzten. Eta ondo ekiditzeko nahian arropa eta oinetakoak elkarri trukutzen zizkioten.

Ihauteriaren amaiera

Eginoko ihauteriak, gainontzeko inauteriekin gertatu zen bezala, gerra zibilaren ondoriak jasan zituen, debekatu egin zutelako, alegia. Aitzakia izan zen egun horiexetan, mozorro eta maskaren anonimatoari esker mota askotako lapurketa eta erasoak sortzen zirela (E).

Azken inauteriak 1926-1927 urteen buruan ospatu ziren (I).

IDATZIZKO TESTIGANTZA

Ahozko testigantza hauek osa ditzagun, hemen dagoen Juan Garmendia Larrañagak 1982.urtean argitaratutako "Carnaval en Alava" delako liburuko pasartearekin non Eginoko ihauteriaren berri eman zigun 1976.urtean Francisco eta Julian Zeberio bizilagunei egindako solasaldian oinarritua.

Ihauteri asteartean "lasto gizona" atontzen zuten. Bazituen txapela edota kapela, kartoizko mozorroa, alkondara, jaka, prakak eta abarkak, belarraz edota lastoz beteta eta lepoan zapi gorria jartzen zioten. Oinetatik lotuta asto baten gainean kokatzen zuten eta "porreroak" bidelagun izaten zituen, aurretik, neska zein mutilak ere, akordeoiaz edota danborraz eta kitarraz herri-eskaria eginda. Lasto gizona lurrean jositako makil baten ondoan lurrean uzten zuten.

Inauteri astearteko goiz zeregina Gurrumendi gainetik ulagak ekartzea izaten zen. Honexetarako animalien ordeztartutako bi gazteek tira egiten zuten gurdiaz baliatzen ziren eta porreroak uztar-hedearen erdira ondo kokatuta baita finkatuta ere izateaz arduratzen ziren. Mozorrututako gazte hauetxek izaten ziren ere gurdia bultzatzen zutenak.

Arratsaldean, apaiz antza gazte batek sermoia botatzen zion lasto gizonari heriotz zigorrera kondenatuz. Sententzia errudunak gainean zeraman kartutxo lehertzearekin betetzen zen metxari sua ematearekin batera.

Afalostean ulagei sua ematen zien eta gazte batzuk dantza egiten zuten bitartean beste batzuk jauzi egiten zuten suaren gainetik.

Eginoko inauteriak 1936az geroztik bi edo hiru aldiz egin ziren. Eta askoz ere lehenago lasto gizonaren pantomimari utzi zen.

BERE SINBOLOGIARENGANAKO HURBILKETA

Hitzaurrea

Zenbait leku jakinetan tradizioak erabat zehaztuta ditu ihauteriak, gertu dugun Zalduondo herrian bezalaxe. Markitosen inguruan porreroak mugitzen dira, Atsoa, Latorregilea, Ardiak... Guzti hau berdin gertatzen zen Ilarduian, Eginon eta Andoinen ere.

Urtero bezala sasoi honetan honako galderak berpizten zaizkigu, hots, nondik datoz Inauteriak?, zer esanahia mota dute? Edota zergatik irauin dute hain fidekor?.

Inauteriak bete-betean "neguko festeen zikloa"n sartzen dira. Eskuarki otsail erdialdean ospatzen dira.

Bere esistentziaren arrazoia gizarte mailan dagoen aterabide baten beharrean bila daiteke, gizataldeko terapia bailitzan, indarrean dagoen aginteriak kontrolatuta zein onartutako gehikeriazko garaian oinarritua. Indarrean dagoen agintea apurtzeko aukera ematen dute baita mozorro baten atzetik sexuzko gogo mota guztiei irteera ere. Are gehiago, oraindik, mendeku eta zorrak ordaintzeko sasoi aproposa izan badira.

Zenbait unetan Elizak berak ere begi onez ikusi zuen jai hau eta adibide gisa XVII.mendean egun batzuetarako konbentutik alde egiteko baimena ematen zitzaieen prailei inauteri mundu ilunpean bizitzeko. Eta geroago etorriko zen penitentzia edota berriztapen garaia, Garizumaren eskutik.

Eskuarki Inauteria hausterre egunaren aurretiko hiru egunetan ospatzen zen, aitzitik, salbuespenak bazirelarik Euskal Erkidegoaren zenbait aldetan gabonen amaieran hasiera izanik.

Herri inauteri askotan aurrekristau agerpen sakona erraz ikus daiteke, jendeak unibertso indarrei begiratzen zien garaian.

Bi inauteri mota bereiztu daitezke, folkloreaki dagokiona, geure herriak aintzidari izanik eta, gaur egungoa, Rio de Janeiro bezalakoak. Lehen motatakoak euskal inauteri gehienak izan daitezke, erlijio-pagano arlokoak eragin kristauekin batera. Eta bigarren mailakoak, aintzineko greziar eta erromatar festeetan aurki daitezke "lupernalak" eta "saturnalak" bezalakoak.

Inauterietako bi osagai funtsezkoenak mozorroa eta maskara izaten dira.

Hasieran herri festa izan zen, partehartzailea, sormenezkoa eta jai girokoa. Leku bakoitzean bere zehaztasun bereziak izaten ziren. Gaur, neurri handi batean, espektakulo gisa bilakatu da batzuk ikusle eta besteak konfetiz eta karrozeekin parte hartzaile.

Lasto Gizona

Asparrenako hiru herrietan panpin bat erretzen zuten "lasto gizona". Aragoiko Pirineoldeko zenbait herritan, bitxia bada ere, pertsonai berdina topa dezakegu.

Ez da batere erraza agerian uztea hau bezalako pertsonaiak ezkutatu dezakeena. Konszienteak izan behar gara saiakeren mundua murgiltzen ari garela.

Batzuren ustetan lehen ihauteri hastapenak Babilonian topatu direla diote J.a.ko 4.000. urtean. Babilonian oso era bitxian ospatzen zen inauteria; gartzelan zegoen espetxeratu nazkagarrienetarikoren bat errege izendatua izaten zen, izendapenak zeraman handitasun zein ospearekin batera. Jaien bitartean jauregian bizi izaten zen, "haren"go emakumeekin oheratzen zen eta janaririk onenetarikoak jaten zituen bere erregeaulkian publikoki agerian izaten zelarik.

Boskarren egunean publikoki auziperatua izaten zen koroa lapurtzeagatik eta traidore gisa heriotz zigorrera kondenatua izaten zen. Exekuzioari esker herriari zegozkion gaiztakeria, zikinkeria eta soberbia garbitzen zitzaizkion eta, jakina, benetako erregea bere eserlekura beritzultzatzen zen. Errege urte berriari hasiera garbia ematen zitzaion, herria eta Jainko/sekiko beradiskidetzearekin batera.

Ikuspegi honetatik, lasto gizona kopla-buruko akerra litzateke, guztiek akatuko zutena eta bere desagerpenarekin, urte zaharra amaitzean (otsailean bukatzen zen urtea lehen) herri pekatu eta gaiztakeriak eramaten zituena, hain zuzen ere.

Apaizaren sermoiak sinbologikoki zekartzan bertako ezbehar guztiak lasto gizonari eragiten zizkion. Heriotz zigorrera kondenatua (polboraz edota suaz)desagertzeko izan zen. Lekua berriztuta geratu da. Su garbitzailearen inguruan pozik dantzatzea bazitekeen.

Ez da falta inork ihauteri errito hau aurreko garaian pertsona matxinatuak kondenatzearekin bat etor daitekeela dioenik. Errudunak hantxe bertan ez egotean, gutxienez, bere esfingea kondenatzen zuten. Kasu hauetan lasto gizona egiten zuten eta bildutako jendari sententziaren berri ematen zitzaion eta lapurra edota hiltzaile gisa exekutatzeko zuten. Batzutan ahorkatua izaten bazen ere gehienetan borrhoroek erreta izaten zen.

Beste batzuk Jainko/sa zahar bailitzan sakrifiziotzat jotzen zuten beste Jainko/sa gazteago baten truke aldatzeagatik. Lasto gizonak hiltzear zegoen landaretza izpiritua ordezkatzeko zuen, negua, alegia. Gari alea galburua sortzeko safrikatua izaten den bezala natura izpirituarekin gauza bera gertatzen da. Bere heriotzak bizia zekarren. Neguaren amaierarekin udaberria garaile sartzen da. Bere ondorengoak, idartsuago, bere lekua bete du (animalia munduan askotan gertatzen zen agerraldia).

Interpretapen honen arabera ez da natura izpiritua akatzea baizik eta agerraldi gardenago zein indartsuagoa suspertzea. Natura ahula da (neguan) eta izpiritua bersortzeko hil behar da eta berriro bizitzera ekarri, baina indar berriztuekin.

Honako datuek tesi hau berindartzen dute, pertsonai hau hemen eta beste lekuetan (Zalduondo) ere makil batean josia izaten zen zuhaitz gisa. Beste zehaztapen aipagarri bat Atsoa izaten zen, baina kakahuetez betea (fruituak) eta panpina lehertzean umeen pozarako kanporatzen ziren.

Natura bezala zenbait kulturetan ez dute inolako arazorik izan euren erregea exekutatzeko ahulekeria keinuren bat izanez gero. Euren siniskeren arabera erregea indartsua bazen herri osoa ere izaten zen eta alderantziz beren nagusia ez bazen egokia herria bere etsaien arrisku azpian gera zitekeen.

Interpretapenik egokiena zein den jakin ala ez, lasto gizona adierazpena gaur egun herri hizkeran erabiltzen jarraitzen dela. Edozeini txontxongilo egitearena leporatzen zaio, beste indar ezberdinen eskupean non erabakiak hartzen diren. Politikagintzan batik bat erabiltzen da baita beste arloetan ere.

Porreroak-zamarrak

Porrero zomorroen artean badago bat nahiko erabilia ardi zamar bat edo bi gainean jartzea, idi uztarrietarako erabiltzen zirenetakoak gurdira uztartua joaten zirela. Larru hauei zamarak deitzen zitzairen.

Animalia larruekin mozorrotzea aintzinean ez zen joku bat izaten eurekiko indetifikatze mota bat baizik eta askotan euren ezaugarri bereziak bereganatzeko ere.

Animaliaz janzterakoan bere indar magikoa bereganatzen zuten Jainko/sa bilakaturik edozein eratan. Aintzineko herrientzat ehiza animalia gizakia baino izate gehiago ordezkazten zuen. Bertako Jainko baten ordezkapena, aintzineko garaian, gaur egundo Santu edota Birjina baten prozesioa liteke.

Urteak aurrera joan ahala animalia mozorro osoa leku askotan aldatua izan zen deabru eta animalia maskaren bitartez.

Porreroak-gizenak

Geure herrietan ohikoa den beste mozorro bat omen zen arropa zaharrak edota oihalezko sakuak belar lehorraz edota lastoz betetzea eramatea. Era honetan gizen samar ematen zuten eta beren mugimenduak oso traketsak izaten ziren.

Pertsonai hauek beste ihauterietan topatzen ditugu Lesakan (Nafarroan) "zakuzarrak" (saku zaharrak), baita Zalduondon ere.

Ilarduian, Eginon eta Andoinen ez dira hain astunak eta traketsak arestian aipatutakoen bezala.

Batzuren ustetan pertsonai hauek artzarekin (artz-gizonak) erlazionatzen diuzte, besteen ustetan inimiziazio erritotzat hartzen dute eta inor badago ere tripazainkeriarekin erlazionatzen duena.

Aipatzekoa da pertsonai desitxuratuak izatea non gorputz atal bat azpimarratzen den: ipurdia, tripa, konkorra, etabar. Eskualde honetako datu aipagarria da.

Porreroak-hautsariak

Adinekoen gogoan Andoingo porreroek hautsa elkarri botatzen zioten baina debekatua izan zen behin gazte bati ikusmena mindu zietelako.

Iraulketa edukiaz gain (inork ez du gustoko zikindua izatea), hautsa sortua izan den sua bezala, biziemaile zentzua badu. Aintzinean basapiztiak uxatzeko erabiltzen zen saguekin bezala. Herri kontaerak gauza bera dioskute.

Ohikoa zen ere landaketak, animaliak eta pertsonak garbitzeko erritu keinutzat hartzen zuten ihauteria.

Beste porrero batzu: farfailetakoak eta koloretakoak

Gazteek emakume farfailak eramatea gehien erabilitako iraulketa era izaten zen, sexu aldaketa hain zuzen ere. Gogoan izan dezagun aintzinean beste sexuko jantzia eramatea seigarren aginduaren aurkako pekatutzat hartzen zen.

Ia ohiko inauteri guztietan fardelak era batean edo bestean ateratzen ziren.

Senar-emaztegai bikotea

Ezkondutako senar-emazte bikotea herri hauetako ihauteri agerraldei zati bat izaten zen. Berriro ere ugalkortasun zentzua agerian zegoen. Negu lozorrotik natura esnatzen bada gauza bera gertatzen da giza naturarekin. Gazteek agor garaiari amaiera ematen diote sasoi berri bati hasiera emanez non ondorengotza bedeinkatua izaten den.

Urte sasoi hau ezkontzarako oso aproposa zen.

Atsoa

Inauteri hauetan ohikoa izaten zen atsoa agertzea ere. Pertsonai honekiko egiten diren interpretapen guztien artean badago bat non bere ustetan natur indar nekatu eta zaharrak ikusten diren hiltzear dagoen urte zaharraren

ordezkapen gisa. Ikuspen honen arabera inauteriak oso aintzineko natur indarrak berrizteko formulak gordetzen zituen. Ziklo berri bati hasiera ematen zitzaion. Neguak udaberriari urratsa ematen zion.

Egilazeko inauterietan aipatzeko da pertsonai nagusia, hemen lasto gizona bada, Atsoa izan zela. Bera ere lastoz beteta zegoen. Bikuñan gauza bera gertatzen zen aipamen berezi batekin "Amona" deitua izaten zela.

Latorregileak

Aldizka latorregileak heltzen ziren eskualde honetara Ilarduia jentil kobazuloetan bizitzera geratzen zirelarik. Eginoko bizilagunek kobazulotik kea ikusten zutenean "jentilak etorri direla jadanik" zioten.

Latorregile hauek herriz herri joaten ziren apurtutako ontzi eta lapikoak konponduz. Zioten bezala ez ziren ondo ikusiak izaten mesfidantzaz begiratuak baizik.

Mozorroak

Maskara hitza arabiar "masjara" hitzatik dator, mozorroa, bufonada esanahia duelarik.

Herri hauetan diotenaren arabera porreroek maskara ezberdinak eramaten dituzte, zenbat eta itsusiago hobe beste herrikideek ez ezagutzen saiatuz baita umeak belduraraziz ere.

Batzuren ustetan maskara pertsona eta animaliei darien bizi energia harrapatzeko tresna izateko zuzendua da, honelaxe norabiderik gabe ez geratzeko eta bizidunei trabarik ez egiteko. Besteen ustetan, aitzitik, aintzineko kulturetan, Jainko/sak imitatzeko era bat izaten zen.

Beste batzutan amodioaren begitartea izan zen negu festa hauek izan zuten alde erotikoa ezin ahaz dezakegarik, beste gauzaren artean ernalketa festak baitziren. Izan ere, hasieran Jainko/sekin erlazionatzeko baziren ere azkenean maskarak pertsonaren izkutuko gogoen estalki bilakatu ziren. Denbora aurrera joan ahala antsezpen hauei beste batzu gehitu zitzaizkien, honakoak besteak beste, gorrotatu edota beldurra sortarazten zuten pertsonaiak, agerian geratu gabe farre edota kritikatuak izan zitezkeenak, geroko ondoriorik gabe izateko mendekurik gabe.

Ilarduia eta Andoin herrietako nagusien hitzetan datu bitxia da maskara beltzak eta gorriak askotan erabiltzea edota aurpegia margotua eramatea hauetako kolore batekin.

Kolore beltza eta gorria oso aintzinekoak izan ziren aurrehistorian horren berri bazegoelako. Gogora dezagun nola Zuberoako maskaretan indar handiz agertzen ziren!.

Naturaren izpiritua

Gainean pasa gabeko datu batzu dira landarekiko erreferentzia zuzena egiten dutenak. Andoinen, dioten bezala, artilezko txano batekin ateratzen ziren ertzeetatik "pelendrinak" (arto hostoak) zintzilikatutik eta beste batzuk arto ilez egindako bibotea itsatsita zeramaten.

Andoinen ere diote banaka batzuk pelendrinaz beteriko saku eta arropa zabal zaharrak zeramatzen jantziaren atal batean desitxuratuz (tripa, konkorra, ipurdia, etabar).

Natur izpirituarekiko erreferentzia ikus dezakegu guzti honetan. Ihauteri errito honekin aintzineko gizakiak agian natura birsortzen lagunduko zuen.

Kukurutxoetako kolore ezberdinen zintak landare elementu ordezka ditzakete. (Beheko Bavieran) Niederpaningen mendekoste pazkoaldian badago pertsonai bat "Pfingstl" deitua goitik behera landareez josia (loreak, hostoak) eta buruan kukurutxo bat ur landare loreez estalita.

Oso sormen aintzineko festa askorekin natur indarrekin gizakia erlazionatzen duen herri inauteria da. Ikusmolde hau galduz gero ez genuke bere barruko esanahia ulertuko.

Zinzarriak eta kaskabiloak

Orokorrean esan daiteke zenbait musika tresnen hotsak, geure arbasoen siniskeren arabera, izpiritu gaiztoengandik aldentzeko balio zuen. Magikotzat hartuak ziren. Zinzarria eta kanpaia geroko erabilpena izan baino lehenago aintzinean izpiritu gaiztoak uxatzeko tresnatzat hartuak izan ziren, ezbeharrak erakartzen zituzten deabruak alegia.

Kontuan hartzekoa da ere artzai mundun zinzarri hotsa lokartua dagoen natura esnatzen saiatzeko dela.

Zinzarri, txilin eta kaskabiloen erbilpena iraunkorra izan da lur ernalketa sortarazteko baita izpiritu gaiztoak aldentzeko ere. Bere erabilpena ohizkoa izan da Dionisosenenganako gurtzan eta gaur egun oraindik Afrikako zenbait lekutan erabiltzean jarraitzen dute.

Geure arbasoek, porreroz mozorrotuta gerrian zinzarriak eramaten zituzten gorputz mugimendurekin hotsarazten zuten. Kaskabiloak ere eramaten zituzten bai gerrian zein lepoan ere.

Data hauetan egindako zarata askoren artean lasto gizonaren barruan lertarazten duen petardohotsa da, txiki-txiki eginda uzten zueneko. Espainian nola Italian ere inauterietan ontziak petardoekin apurtzea ohikoa izaten zen hots ikaragarria sortaraziz.

Putxika

Eskualde honetan jasotako datu bat da umeen atzetik joatea "botintxa"rekin edota txerri sabela handitua. Leku ezberdinetako ihauteri askotan ohikoa izaten zen. Beste leku ezberdinetako inauterietan ere jo egiten zuten behor zurdileekin, etabar.

Ohitura honen sorburua topatzeko erromatar jai batera jo beharrean gaude "lupercalias" edota "luperciales" deituak, non gazte luperkoek, erdi biluzik emakume gazteen atzetik joaten ziren euren "februa"ekin (paperezko tirekin) ernalketa eta garbitasun zentzupean. Augusto gazteenei parte hartzea galerazi zien askatasun gehikeriengatik.

Baina erromatar garaia baino lehen baziren erritoak non zenbait pertsonai mozorroak ikusleak beldurtu eta jo egiten zituztenak, garbitasun xedepean.

Zaldi zurdilea

Nagusiek gogoan dute nola zenbaitek txanotik zaldi zurdilea zintzilik zeramatela. Agerraldi hau Kuartangoko inauterian errpikatzen da.

Zaldi irudia era batean edo bestean gainontzeko inauterietan ikusten dugu, esatebaterako Lanzeko Zaldiko, Zuberoko Zamazainen mozorroen bidez.

Bere agerpena ez da gutiziazkoa. Zaldiak ezaugarri magiko edota sakratuak ditu paleolitoari zegokion artegintzan ikus daitekeen bezala.

Ihauterietan duen agerpena azaltzeko teoria askoren artean (aintzineko Jainko/sa, arimen garraioa, etabar) badago bat handitasun eta ernalketarekiko erlazio zuzena agerian uzten duena. Geure herrian, abeltzain eskualdean, ohizkoa litzateke zaldia hartzea handitasun izpiritutzat.

Europar zehar erritozko festa askotan "zaldi-gizon"en agerpena bada.

Iraulketak

Inauteriak duen ezaugarri bat ohiko arauen haustea da, gizona emakumea janzen da (alderantziz ere), bertako garrantzi handiko pertsonaiak erridikuluan uzten dira, etabar.

Arlo honetan inauteri honetako zenbait osagai sar ditzakegu (herri askotan ohikoa zena), ateak lokatzaz zikintzea erratzarekin, piperminakeria...

Lasaialdirako lizentzia bazegoen, norberak giza ohitura onetik erreprimitua zuen giza forma hori agerian uzteko garaia zelarik.

Hala eta guztiz ere ez zen edozein abusu mota ematen, errito aldaketak ziren batik bat, urtez urte errepiatzen ziren ekintzak eta leku ezberdinetan.

ONDORIOA

Gizalaguna baita geure arbasoak ere, bizitzaren kilikoloan murgildu ziren, esatebaterako eguraldi eragileak (ekaitzak, lehorreak, urakanak), basapiztien presentzia, gaixotasun eta heriotzaren bapateko etorrera...

Kasu askotan osagai hauen sormena naturaz gaindiko indarrei zegokien. Kontrolpean izateko era bakarra, edota baretzekotan herentzian hartutako erritualak bezalaxe. Errito urratsak zehatz-mehatz betetzeak bizitzaren ordena bermatzen zuen; ez egitea edota errituekin oker egiteak hondamena zekarren (izurriteak, lehorrea, izurri beltza, gosea, heriotza...). Horrexegatik adinekoek behin eta berriro erepikatzen ziguten erritoak zehatz mehatz betetzeko.

Horrexegatik edozein aldaketa gaizki ikusita zegoen. Eta honelaxe mendeetan zehar iraun duten ohiturak gugana etorri dira.